



DBH 3

ONGIZATE FISIKOA ETA EMOZIONALA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Irakasgai hau praktikoa da eta parte-hartzean oinarritua dago. Heziketa Fisikoaren arloan landutako alderdiak sakondu, ongizate fisikoa, emozionala eta soziala indartzea du helburu nagusia.

Eduki esanguratsuenak

- Ongizate fisikoa: Ariketa fisikoak pertsonaren osasunean eta garapen integralean dituen ondorio positiboak.
- Ongizate emozionala: Autokontrola, tolerantzia eta kiroltasuna, emaitzak lortzeko zutabe. Arnasketa eta erlaxazioa, emozioen erregulazioarekin duten lotura.
- Gizarte-ongizatea: Kolaborazioa eta kooperazioa taldeko ikaskuntza-zereginetan. Konpetentzia motorraren maila guztiekiko eta aniztasunaren balioarekiko errespetua.

Oharra: DBH1en, DBH2n edo DBH3n bakarrik egin ahal izango da.

ATZERRIKO BIGARREN HIZKUNTZA (FRANTSESA)

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Kurtso honetan jarraituko dugu konpetentzia guztiak landuz: Irakurketa eta entzumen ulermena, hala nola ahozko eta idatzizko ekoizpena. Sei unitate landuko ditugu ikasturtean zehar. Unitate bakoitzean Gramatika, hiztegia eta komunikazioa lantzen ditugu. Idazlanak eta Diktaketak ere egingo ditugu, idazketa eta entzumen ulermena hobetzeko.

Eduki esanguratsuenak

- Le futur proche, le présent progressif et le passé récent
- Les pronoms COD et COI
- Négation: ne... rien/personne/jamais/plus.
- Les pronoms relatifs : qui, que, où
- Le passe composé avec l'auxiliaire être et avoir
- L'accord du participe passé.
- Le futur simple
- Les verbes en -ir: voir, offrir, découvrir, ouvrir.
- Les verbes en -yer
- L'imparfait.

Oharra: Frantsesa aukeratzen duenak, 3. eta 4. mailarako aukeratuko du.



PENTSAMENDU AUTONOMO ETA KRITIKOAREN HASTAPENAK

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Jakintzagai honetan hausnarketa pertsonala eta taldeko eztabaida landuko dira. Horretarako egungo munduak aurkezten dizkigun hainbat arazo etiko, politiko eta teknologiko aztertuko ditugu, betiere ikasleen interesak kontuan hartuz eta metodologia kooperatiboak erabiliz. Idatzizko testuak (artikuluak, berriak...) eta ikus-entzunezko materialak (dokumentalak, bideo laburrak, filmak...) abiapuntutzat hartuta, ikasleen pentsamendu kritikoa eta autonomoa garatuko dira: informazioaren fidagarritasuna egiaztatuz, ebidentziak bilatuz, zalantza eginez eta arrazoiketak ongi eratuz.

Ikasleek bizi duten mundu aldakorrari buruz gogoeta egin eta errealitatearen ikuspegi zabalago bat eskuratzea izango dira jakintzagaiaren helburu nagusietako batzuk. Aniztasunari errespetua eta jarrera enpatikoa bultzatzea ere ardatz garrantzitsuak izango dira.

Eduki esanguratsuak

- Nortasuna. Pertsona eta gizartea.
- Aurrerapen teknologikoak eta etika.
- Etika eta politika. Demokrazia.
- Diskriminazioa.
- Giza eskubideak gaur egungo munduan.
- Ingurumenaren zaintza.

Oharra: DBH2 edo DBH3n egin ahal izango da, ez bietan.



KULTURA KLASIKOA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Mendebaldeko zibilizazioa hainbat kulturaren arteko nahaste eta komunikazio prozesuaren emaitza da. Mendebaldeko gaurko kultura, izan ere, grekoa eta erromatarra bezalako zibilizazioetan izandako gertaeren emaitza da. Haien irudimen sortzailea eta munduaren ikuskera, haien erlijioa, politikaren arloko aurrerapenak (erakundeak eta zuzenbidea), teknologiaren arlokoak (hirigintza, komunikazio sareak, teknologia militarra), artea eta bizikidetzaren arauak, filosofia, zientzia, literatura eta abar gureganaino heldu dira. Haien lorpenez eta esperientziaz baliatu izan gara hiru mila urtean. Kultura klasikoa hasi zen jakintza sistematikoki antolatzen. Munduaz izan zuen ikuskerak gure pentsaeraren sakoneko egiturari eusten dio eta gaur ere berak gidatzen gaitu garrantzitsutzat dauzkagun helburuetara. Zibilizazio haren etika soziala eta arauak ditugu gaur ere oinarri.

Eduki esanguratsuak

1. multzoa. Guztientzako edukiak.
2. multzoa. Mundu klasikotik egungo mundura. Egungo ikuspegia.
3. multzoa. Grezia.
4. multzoa. Erroma.



KULTURA ZIENTIFIKOA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Ikasleengan zientziarekiko interesa sortzeko balioa duen ikasgaia da. Horretarako, ikasleentzat garrantzitsuak diren egoerak landuko dira.

Kritikoki analizatuko da zientziak eta aurrerapen teknologikoek pertsonen bizitzan eta osasunean duten eragina, baita gizartearekiko eta ingurumenekiko interakzioak ere, XXI. mendeko erronka eta arazo globalei aurre egin ahal izateko.

Edukiak, laborategian eta informatika gelan material ezberdinak (liburuak, apunteak, IKT materialak..) erabiliz landuko dira talde lanean edota bakarkakoan.

Lankidetzeta eta ikerketa taldeen lanak sustatuko dira.

Eduki esanguratsuak

- Astronomia, unibertsoa esploratzen.
- Osasuna, aurrerapen zientifikoak.
- Ingurumen-inpaktua, aurrerapen teknologikoak.
- Generoa eta kultura zientifikoa.

ADIERAZPEN ARTISTIKOAREN HASTAPENA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Tailer honetan teknika tradizionalak landuko dira eskuekin. Diseinu tradizionala eta eskuzko teknikak landuko dira. Hasieratik amaierainoko proiektuak landuko dira, jarraitasuna ezinbestekoa izanik.

Eduki esanguratsuak

- Buztinezko modelatua.
- Grabatu teknika.
- Otargintza.



ZIENTZIA TAILERRA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Ikasleek trebetasun zientifikoak garatuko dituzte, besteak beste: adimen malgutasuna, jakin-mina, zentzu kritikoa, egintzak egiaztatzea, bistakoa zalantzan jartzea, lankidetzeta eta talde lan harremanak. Horretarako gainerako ikaskideekin elkarlanean arituko dira, inguruneko egoera problematikoak aukeratu, ikertu, hala balegokio, konpontzeko, eta haien iritziak ikuspegi kritiko batez onartuz eta lanetan aktiboki parte hartuz. Jarduerak burutzerakoan eta materiala erabiltzean ordena eta garbitasun ohiturak garatu nahi ditugu, segurtasun-arauak betetzeak duen garrantzia ohartaraziz.

Ikertuko diren arazoak natura fenomenoek, bizi garen inguruneko eguneroko egoeren edo teknologia aplikazioen artean aukeratuko dira.

Metodologiak lanak ikerketa txikiak egiteko joera izango du. Ondorioak errealitatearekin lotu behar dira (eguneroko egoerak, fenomeno naturalak, teknologia ...)

Ikasleek ingurumena zaintzen ikasi beharko dute, baita laborategia eta bere tresnak ere. Laborategian sor daitezkeen arriskuez jabetzea eta ardura eta norberaren irizpideak aplikatuz arriskua saihesten ikasi beharko dute.

Eduki esanguratsuenak

- Fisika-kimikako laborategia. Garbitasuna eta segurtasuna.
- Fluidoekin lotutako teknikak.
- Tenperaturari lotutako teknikak.
- Substantziak banantzeko teknikak. Soluzioen prestaketa eta azterketa.
- Masa eta bolumenaren neurketa.
- Erreakzio kimikoak.



PROGRAMAZIOA ETA 3D DESEINUA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Tailer honen helburua programazioaren oinarritzko ezagutzak berenganatzea eta ordenagailuen bidez 3D diseinua egiteko dauden tresnak ezagutzea eta erabiltzen ikastea da.

Horretarako, ikasleek hainbat software erabiliko dituzte, besteak beste: Luberrri sistema eragilea, programatzen ikasteko lan tresnak eta 3D simulazioak egiteko aplikazioak.

Hautazko hau erabat praktikoa izango da.

Eduki esanguratsuenak

- Programazio hizkuntzaren oinarriak ikasiko dira pentsamendu
- konputazionalaren bidez. Algoritmoak.
- Blokeetan oinarritutako programazioa.
- 3D kontzeptua zer den ulertu.
- 3D objektuak sortu.
- Blockscad softwarea erabili 3D simulazioak egiteko.

ASMAKIZUN ETA MAKINEN TAILERRA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Makina eta asmakizun tailerra nagusiki praktikoa da eta, bere funtsa sentiberatasun teknologiko eta artistikoa garatzea da. Tailerreko tresna eta makinak erabilera zuzena egiten ikasiz, eta material ezberdinak erabiliz, emaniko arazo-egoerei konponbidea era sortzaile batean emango diete. Proiektuen-metodoa eta objektuen-analisia izango dira metodologia ardatzak.

Eduki esanguratsuenak

- Asmakizunak eta asmatzaileak historian zehar.
- Tailerrezko oinarritzko eragiketak.
- Proiektuen- metodoa.
- Ideien adierazpena (adierazpen grafikoa, ahozko eta idatzizko adierazpena).
- Makinak eta mekanismoak.
- Elektrizitate eta magnetismoa.

Oharra: DBH2 edo DBH3n egin ahal izango da, ez bietan.



MUSIKA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Teknologia berrien presentziak erabat aldatu du soinuak sortzeko, erregistratzeko eta transmititzeko modua, horiek manipulatzeko aukerak areagotuz, baita horiek entzuteko eta kontsumitzeko modua ere.

Jakintzagai honek sormen prozesua tresna digitalekin eta teknologiarekin lotzea du helburu, musika produzitzeko eta tratatzeko baliabideak ezagutuz eta oinarrizko teknikak erabiliz.

Ikasleen beharretara egokitutako askotariko baliabideak erabiltzen dituzten proiektu praktikoak garatuko dira ikasturtean zehar.

Eduki esanguratsuenak

- Musika eduki teoriko-praktikoak: Erritmoa, pultsua, konpasa. Melodia, tonalitatea, eskalak Harmonia o Instrumentu ezberdinak o Kanten egitura formala o Musikaren interpretazioa.
- Musika sormena: o Erritmoak sortzea o Melodiak sortzea o Kantak sortzea .
- Musika sortu eta editatzeko programak: o Partiturak sortzeko programak o Audioa editatzeko programak o MIDI-a o Loop-ak eta DJ teknikak o Musika ezberdinak nahasteko programak.
- Soinua grabatu eta editatzeko prozesua: o Soinua nola jaso (mikrofonoa) o Soinuaren digitalizazio prozesua o Soinua editatzeko aukera ezberdinak (efektuak, etab.).
- Soinu grabazioaren garapena historian zehar: o Teknologia ezberdinak o Soinu grabaketa analogikoa o Soinu grabaketa digital.



ELIKADURA OSASUNGARRIA TAILERRA

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Ezagutzen al duzu elikadurak gure osasunean eta ingurumenean duen eragina? Ba al dakizu menu osasungarri bat prestatzen?

Tailer honetan, galdera hauei erantzuna ematen ikasiko dugu modu praktiko batean: menuak diseinatuz, laborategiko oinarrizko teknikak erabiliz, gaur egun modan dauden “superelikagaien” inguruan eztabaidatuz, elikadurarekin erlazionaturiko gaixotasunak ezagutuz, etab.

Laburbilduz, elikadura osasungarria tailerrak, ikasleek ohitura osasungarriak bereganatu ditzaten du helburu, elikadurak eta nutrizioak bizitzan, ingurumenean eta garapen jasangarrian duen garrantziaz jabetuz.

Ikasgaia modu praktikoan landuko da eta ikastetxean eta ikastetxetik kanpo (irteerak). Ebaluazioa ere, klasean egindako lanean oinarrituko da.

Eduki esanguratsuak

- Elikagai motak: energetikoak, erregulatzaileak eta egiturazkoak.
- Gaur egun modan dauden “superelikagaien” ezagutza eta hauek benetan duten eragina.
- Laborategi praktikak: mantenugaiak identifikazioa, elikagaien kontserbak prestatzea, etab.
- Dieta mota desberdinen azterketa eta diseinua.
- Gure dieta eta planetaren osasunaren arteko harremana (aldaketa klimatikoa, lurzorua eta uraren kutsadura, etab)
- Elikadura eta osasunaren arteko harremana eta honekin erlazionaturiko gaixotasunak (malnutrizioa, obesitatea, minbizia, gaixotasun kardiobaskularrak, etab.)
- Norberaren behar energetikoen kalkulua.



ERAGIN MINGAINARI

Ikasgaiaren deskribapen laburra

Jakina da komunikazioa oinarritzko tresna dela gure gizartean eta, alor horren baitan, aurkezpenak egitea da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan aise menderatu beharreko konpetentzia, bai bakarka aritzeko, baita elkarreraginean aritzeko ere.

Hori da hain zuzen ere, hautazko honetan landuko dena: Informazio eta Komunikazio Teknologia anitzak erabiliz, gaur egungo gaiei buruzko informazioa bilatu eta aurkitzen trebatuko ditugu ikasleak lehenengo; ondoren, informazio hori euskarri digitaletan gorpuztuko dugu; eta, azkenik, komunikazioa landuko dugu, gorputz adierazpena eta ahozko zein idatzizko ekoizpena, hain zuzen ere.

Eduki esanguratsuenak

- INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIAK
 - Informazioa bilatzea
 - Aurkezpenetarako euskarri digitalak
- KOMUNIKAZIOA
 - Asertibitatea, enpatia eta komunikazio ez-bortitza: zer esan nahi dut eta nola esan nahi dut?
 - Hitzeko komunikazioa aurkezpenetan
 - Idatzizko komunikazioa aurkezpenetan
 - Gorputz adierazpena aurkezpenetan